

Pilotako Zaramagako Txapelketa Sozialak 374 pilotari bilduko ditu maiatzera bitarte

Ostegunean hasiko da txapelketa, eta bikote txapeldunak maiatzaren 17an eta 21ean jokatuko *diren finaletan ezagutuko dira*

Emakumezkoen Txapelketaren zortzigarren edizioan 16 bikotek hartuko dute parte

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 13a. Pilotako Zaramagako Txapelketa Sozialak 51. edizioa beteko du aurten, eta 374 pilotarik hartuko dute parte 187 bikotetan banatuta. Partidak ostegunetik aurrera jokatuko dituzte, eta maiatzaren 17 eta 21ean jokatuko dituzte kategoria bakoitzeko txapeldunak izendatzeko partidak.

Zaramagako udal-pilotalekuan jokatuko diren partida guztien egutegiaren xehetasunak gaur goizean eskaini dituzte Arabako Pilota Federazioaren egoitzan egindako prentsaurrekoan. Bertan izan dira Ana López de Uralde, Udaleko Kirol zinegotzia; Juanjo Rojo, Arabako Aldundiko kirol arloko zuzendaria; Ane Ibañez, Arabako Pilota Federazioko presidentea; José Miguel Pérez, Zaramaga Pilota Klubeko presidentea; eta Leire Garai, emakumezkoen txapelketaren arduraduna.

Aurreko edizioetan bezala, txapelketak kimu, haur, kadete, gazte, lehen mailako senior eta senior elite mailetako pilotariak bilduko ditu. Guztira, 374 parte-hartzaile izango dira, 187 bikotetan banatuta. Jokalariak, Arabatik ez ezik, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa, Errioxa eta Aragoitik ere iritsiko dira.

Txapelketa ostegun honetan hasiko da lehen eta elite mailetako gizonzkoen senior mailetako pilotarientzat, eta hurrengo egunetan hasiko dira kadete eta gazte mailetako, eskola-ume mistoetako, kimuetako eta haur mailetako gainerako pilotariak beren partidak jokatzeko.

Emakumezkoen Zaramaga txapelketaren zortzigarren edizioko parte-hartzaileak izango dira beren partidak jokatzeko hasiko diren azkenak. Lehen partidak otsailaren 15ean, igandean, hasiko dira, promesen kategoriako 12 bikoterekin, eta elite mailan izena eman duten 4 bikoteek maiatzaren 7an, ostegunean, jokatuko dute Zaramagako pilotalekuan.

Partiden egutegiak hiru hilabeteko iraupena izango du, Zaramagako bizilagunek eta Gasteizko gainerako pilotazaleek kirol horrekin gozatzeko aukera izan dezaten. Maiatzaren 17an, igandean, eta 21ean, ostegunean, jokatuko dira finalak eta horietan jakingo da kategoria bakoitzeko txapeldunak zein diren.

Aurreko urteetan bezala, final hauetan ETBko kamerak izango dira partidak emateko eta Zaramaga Pilota Klubaren Youtubeko kanalaren bidez ere ikusi ahal izango dira

